

0. SARRERA

Gu Arkaitz Perez, Aimar Muñoz eta Ander Caballero gara, VitalChallengeko sortzaileak.

VitalChallenge erronka-aplikazioa da. Aplikazio honen bitartez erabiltzaileak erronka desberdinak (janaria, kirola, kooperatiboak...) osatu beharko ditu, erronka horiek osatuz gero, puntuak irabazten joango dira eta puntu gehien lortzen dituztenek hainbat sari (bidaiak, arropak, dirua...) eskuratuko dituzte.




Aplikazioan egongo dira egunero erronka ezberdinak, adibidez, jan Big Mac 5 minututan (kolaborazioa McDonald's-ekin). Ondoren, erronka egiten duten ala ez jakiteko bideo bat bidali beharko dute erronka egiten. Bideo hori ipini dezakete pribatuta edo publikoa, eta publikoa izanez gero, zure lagunak bideoari erreazionatu ahal izango diote.

Aplikazioarekin nahi duguna da gure bezeroek ondo pasatzea aplikazioa erabiliz, hainbat jardura izatea errepikakorrak iruditu ez dakizkien, eta azkenik, aktiboak izatea, dela kirola eginez, dela Bizkaian zehar mugituz, erronkak osatzea lortzeko.

Gure enpresan 4 pertsonak egingo dugu lan. Ander erronkak kudeatuko dituen izango da erronkak kudeatuko dituen eta markekin (enpresaren partaideek aukeratuta) harremanetan jarriko da. Aimar bezeroaren arretaren parte izango da gmail eta telefono bidez, gainera, iruzkin kutxa ikusiko du. Arkaitz kontularia izango da, berak enpresaren gastuak, erosketak eta balantzea eramango ditu. Azkenik, programatzaile bat, aplikazioa diseinatuko diguna eta hobekuntzak egiten hasiko dena gure erabiltzaileek iradokizunak bidaltzen dizkiguten heinean, aplikazioan problemak egonez gero, hauek konpunduko dituean.



Bezeroekiko harremanak online egingo dira, beraz ez dugu behar denda fisikorik. Horretarako, herremanetan jartzekotan telefono edo emailez izan beharko da, hala eta guztiz ere, gure sare sozialetako mezu zuzenetatik (DM edo MD) bidali ahal izango dituzte mezuak eta Aimar arduratuko da mezuak erantzuteaz.



Gure enpresaren izaera juridikoa sozietate mugatua (S.L) izango da. Hau horrela izatea erabaki dugu sozietatea sortzeko euro bat eskatzen dutelako eta gainera, edozein pertsona enpresaren partaidea ez izateaz ez gara arduratu behar.

Kostuak enpresa honetan hainbat izango dira, nagusienak lokala eta programatzailearen soldata izango da, baina ere ibilgetuak eta elementu fisikoak erosi behar izango ditugu. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak ematen duen diru-laguntzarekin kostu guztiak ordainduko ditugu eta diru eskasa izango balitz, 3 bazkideen poltsikotik aterako genuke dirua ordaintzeko.

